

Paula Unzueta Etxebarria

*Aramaio, Araba
(1926)*

Aurkibidea

Biografia



Salasan baserrian jaioa,
joskin ikasia eta
etxekoandrea.

Zintak

ARA-099

- **Proiektua:** Aramaioko ipuinak eta kondairak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Data:** 2009-11-29
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Amandrearen kutuna

- **Erref:** ARA-099/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Asko gogoratzen da amandrez. Amandrearen kuttuna zen bera. Altua eta jatorra zen. Nola janzten eta orrazten zen.

2. Jaunartze-eguna

- **Erref:** ARA-099/003
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartzea nola izan zen. Goizeko zortzietan egin zuten komunioa. Amandreak lagundu zion. Gero etxera joan, gosaldu eta meza nagusira. Soineko dotorea eraman zuen. Ahizpa guztiak soineko harekin egin zuten jaunartzea. Bazkari berezia egun hartan. Dotrina euskaraz ikasi zuen.</p>

3. Santugilea zen aitajauna

- **Erref:** ARA-099/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Aitajauna santugilea zen. Etxeko gela baten zuen lantegia. Kanporako ere lan asko egiten zuen. Zuraz erabiltzen zuen, haritza batez ere.

4. Mamuak bidera irten zienekoa

- **Erref:** ARA-099/006
- **Iraupena:** 0:07:10. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Ahizpa bat oso okerra ei zen. Garizuman txikolan ibiltzen ziren; behin hotz egiten zuen eta lagun taldea etxe batera sartu zen sutondoko epeletara, hango gizonak gonbidatuta. Berandu baten etxera zihoazenean mamu bat irten zitzaien izara zuriz jantzita eta kateak arrastaka. Egundoko sustoa hartu zuten. Laster jakin zuten nor zen, etxeko atarian izara eta kateak ikusi zituztenean.</p>

5. Azakaska

- **Erref:** ARA-099/008
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Azakaska eta txikolan ibiltzen ziren. Txikolan Garizuman. Azakaska nola jokutzen den kontatzen du. "Pones", "nones" eta abar, erabiltzen zituzten hitzak.

6. Uholde handia

- **Erref:** ARA-099/012
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:23:26. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Neskak eta mutilak batera bainatzen ziren. Salasan baserria urak hartu zuen aspaldi; urria zen, Santa Teresa eguna. Orduko gorabeherak. Larri ibili ziren etxean. Astoa eraman zuen urak. Etxaguendik behera etorri zen uholdea. (Beste grabazio batzuetan jaso dugunez, 1953an gertatu zen)

7. Bi mutilek lagunduta Arrasatetik bueltan

- **Erref:** ARA-099/017
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Arrasatera josten ikastera joaten zenean bizikletan, bi mutilek laguntzen zioten itzuleran. Oso jatorrak ei ziren.

8. Abadeak estu hartzen zituen dantzan eginez gero

- **Erref:** ARA-099/019
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:36:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Bolinburukoa zen gizona. Erromerian ezagutu zuen. Berari Letazur-ko erromeria gustatzen zitzaion. Herriko plazan txistua eta Danbolina jotzen zuten. Don Juan izeneko abadeak estu hartzen zituen. Dantzan eginez gero, infernura joango zirela esaten zieten.

9. Herriko kurandera

- **Erref:** ARA-099/022
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:41:35. **Bukatu:** 00:43:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Aramaioko kuranderak enplastoen bidez osatzen zuen. Berak belauneko gaitza izan zuenean harengana jo zuen. Kanpoko jende asko etortzen zitzaion. Inoiz etxean edukitzen zuen jendea osatu arte. Apurtuak sendatzen zituen. Ondo konpontzen zen herriko medikuarekin.

10. Herriko plazan belauniko herri guztia

- **Erref:** ARA-099/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Misinoetan plazan belauniko eduki zuten herri guztia, Sermolari frantziskotarrak etorri ohi ziren eta sekulako beldurra sartzen zieten. Munduaren akaberako egunean eguna ilunduko ei zuen.

11. Torrealdeko Jauna eta Anbotoko Señora

- **Erref:** ARA-099/027
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:49:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Esaera zen Torrealdeko jaunarekin pasatu behar izaten zutela lehenengo gaua ezkontzera zihoazen Aramaioko neskak. Anbotoko Señoraz, berriz, batetik bestera zebilela ez zeruak eta ez lurrak hartu nahi ez zuelako.

12. Albinara iratan

- **Erref:** ARA-099/031
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Albina dena basoa zen. Sasoian egunero joaten ziren ira ebakitzen. Talde handia joaten ziren. Bueltan gurdiaz zetozela Krutzetan elkartzen ziren eta juerga baten jaisten ziren.

13. Salasan baserria bi fronteren erdian

- **Erref:** ARA-099/033
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:55:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Salasanen baserria bi fronteren erdian egon zen hamabost egunez, alde batekoak Murun eta besteak Tellamendin baitzeuden. Elkarri tiroka ibiltzen zirenez, eta arrisku handian zeudenez, gurasoak eta abereak etxean gelditu eta gazteak Goikoerrotara aldatu ziren. Han egon ziren denboraldi batez. Zalgoren zeukaten gorriek intendentzia.

Transkripzioa

-Akordetan za gerriek urten auenien nun zengozen?

-E?

-Gerriek urten auenien nun zengozen akordetan zara?

- Bai, Salasanen. Eta frente bat auen Murun eta beste frente bat Tellamendin. Eta tiroka ibiltten zien alkarri, tiroka ibiltten zien, eta Salasango etxien paretik pasetan zien balok txistu baten! Eta gu, bueno, ezin leikien urten etxetik, ze bertan hartzen auen Salasan, bertan hartzen auen. Eta aittek, ba, hoixe, bala galduren bat iguel egon leikiela-eta, zerien, eta eruen ginduen Goikoerrotara, harik eta, harik eta, zerok, bat

edo bestie zertu arte. Goikoerrotan egon giñen, ba, hamabost bat egun-
edo egon giñen Goikoerrotan geu, zerok, gaztiok. Aitte eta ama etxien
geldittu zien, baiñe gaztiok Goikoerrotan egon giñen. Eta aitte eta ama
etxien geldittu zien ganauekin. Eta, zera, ganauek... Hemen, Tellamendin
egon zien gorrixek eta zerien, Murun, bestiok. Eta, ba, gabetan zerak
etorten ziela ganauek kortatik erueten edo, ba, klaro, jan in biher auien
eta, ba, zeozer eukitteko. Eta, ba, Salasandik ez auien eruen. Eta gero
auen intendentzixe-edo esaten utsiena Zalgón. Han eukien zerok, janok
edo zerok han eukien gordeta, honeik, zerok, gorrixok.

14. Aita atxilotu zutenekoa

- **Erref:** ARA-099/035
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:56:06. **Bukatu:** 00:59:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita atxilotu egin zuten San Martin egun batez. Atxilotu zutenetako bat
lehengusua zuen. Aramaioko kartzelan sartu zuten. Zortzi egun inguruan
herrian eduki eta gero, Gasteizera eraman zuten. Han hilabete egin ostean
jaregin zuten.</p>

Transkripzioa

-San Martin bezperan, behixek batzen ebillen eta etorri zien gizon bi atea,
euren fusillok bizkerrien zittuela, eta atie-edo jo auien eta neuk urten neen.
Ze, han beste batzuk be baozen, baiñe neuk urten neen. Eta
“Aitte” esan usten, eta “Aitte kortan dau, behixek
batzen dabil”, eta “Ba, geuaz etorri biher dau”, eta
“Nora”, ba, “Hori gero jakingo dozu”. Eta esan
nutsen, juen nitzen kortaa eta esan nutsen “Aitte, hor daz gizon bi,
zera, urteteko”. Eta bat bere primue zan, aitten primue zan bat. Eta,
ba, urten auen eta “Geuaz etorri biher dozu”. Eta orduntxe
bertan, gabeako, ya eruen auien kartzelaa. -Aramaixoa? -Aramaixon,
zerien, aiuntamentuen auen kuarto bat eta hori eukien kartzelioi. Eta gu
jueten giñen, zera, janorduek erueten bertaa. Eta, zera, ba, zera, ba,
aitten primue zan bat, etorri zana, eta amandrie Lekiñan,
Lekiñakue zan amandrie, eta, gure aitten ama, aitten ama, bai. Eta
enterau zanian zelan eruen auien eta nortzuk egon zien erueten, juen zan
listo aiztiorreana, zeatik aizta bixen semiek zien, eta itzelezko bronkan bat
in utsen. Eta, ba, holan pasau zan. Eta gero, hamabost egun-edo iñ
zittuen hemen herrixen, eta gero eruen auien Vittoixaa. Eta, bera eta, zera
zan beste bat, zapatero neskon aitte, eta zera, beste bat, hamen Goiko
Tabernan eukien orduen tabernie, Bengoanak-edo esaten utsiena. Ha be
bai, eruen auien, eta besteik nor egon zan? A! Olabetxo be bai. Eta hirurok
behintzet eruen zittuen hantxe, zereaa, kartzelaa. Hamen, herrixen, zortzi
egun pasau erain utsien eta gero, gero Vittoixaa. -Zer eukien, gorri
usaintxue edo? -E? -Gorri useiñe -do eukien, gorri useiñe edo?
Zeaittik eruen zittuen? Gorrixek zielakuen? -A! Horixe! Gorrixek zielakuen,
bai. -Eta zenbat denpora egon zan Vittoixan? -Ba, Vittoixan hilebete-edo
iñ auen. Eta, ba, gero…

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com